

bizitza ofizialik azken urteotan, eta oinarri soziolinguistiko horrekin normalizazio-saioaldi on bat egin lezake okzitanierak haran eder hartan, barruti geografiko askoz zabalagotan ekin aurretik.

Kataluniaren barnean hizkuntzaz bestelakoa den honen parean, ordea, Printzerriak badu kontrakorik ere: Mendebaldeko Zirrinda (Fanja de Ponent deitua). Katalanak Aragoan duen eskualdea da hau. Katalantzaleek ez dute ahantzi nahi mintzairaz beren hizkuntzarena duten eskualde hau. Hizkuntzari bere osotasun geografikoa ere zaindu egin nahi diote.

Katalanaren II. Kongresuan (1986), Histori Sailean bederen, eman zitzaion lekurik kezka eta ardura honi, eta orain berrikitan, La Llitera eskualdean euskarri sozial berriak eman nahi zaizkio arriskuan sumatzen den hizkuntzari. Eratu da "Associació de Consells de la Franja de Ponent", eta egin du bere lehen Batzarrea, herri guztietako elkarteak bilduz. Elkartuta aurre egingo diote batez ere herri handietan erasoan datorren gaztelaniari (Benavari, Tamarit, Fraga). Haurrentzat jakintzagai hautagarria da katalana eskoletan, baina jendearen kontzientzia eskasak ez du Aragoako diputaziotik datorren laguntzari berari ere probetxu onik ateratzeko lain indar. Tamala da, Aranen aranerarentzat egin ahal izan dena, katalanaren beste muga honetan hain zaila gertatzea. Oraingoz, behintzat. ■ *Joseba Intxausti.*

## PNV/EA

EAJ/PNV eten egin da. Uste dut, kanpotik ikusita, hobe izan dela. Zergatik? Ez dakit, inpresio hutsa da eta analisi bate-rako horixe da okerrena.

Moralki, gutxienez, hobe. Zeren eta, gizalege mailan, gizalege-faltaren mailan alegia, bazterrotan ez da gogoratzen aspaldian eztabaida politiko penagarriagorik ikusi izana, mota guztietako bajeza guztietan.

Politikoki, hobe? Inork ezer irabazi duenik, irabazi, oraingoz behintzat ez da ikusten. Ez Alderdiak berak, ez Euskal Herriak. Alde horretatik negatiboa izan da guztientzat. Gauzak aspaldian zeuden bezala, halere, eteteak zirudien hoberena, eta hala adierazi dute alderdi biek. Badirudi, beraz, orain biak hobe to daudela, bakoitzak bere bidea egiteko.

Geroa geroari utzirik, iragana nola aurkeztu izan zaigun, harrigarria da. Azkenean ez du ematen inor ezer asko argitu denik, etenerako arrazoi zinez politikoak edo eideologikoak non zeuden. Egon ere, inon ez omen daude.

Baldin egia bada, berriz, espelikazioa hortik ez doala, orduan, eta orduan arago hain zuzen, pertsonalismoen arrazoi bakarrean aparatatu direnen kontra —sinpleegia da—, erantzunbehar izugarria historiaren eta Alderdiaren aurrean, txikizio honetan amaitu duen estrategiaren markatzaileei, ikusten diet nik. Alderdiaren politikaren lerro nagusien inspiratzaileei, urteotako EBB-kideei bereziki. Zuzenez ala okerrez gidatu duten, ez naiz sartuko, baina erresultatua hori da: Alderdia, azken finean bere historiako frakasurik beltzena kostatu zaion estrategian sartu eta alferrikako Termopila hauetara ekarri dela, ez jakin zer defendatzeko, ez bait dirudi estrategia txit loriatsua. Arrazoiak politiko eta ideologikoak izan ez badira, hain zuzen, pertsonalismoen arrazoi kaskarrarekin estaltzeko handiegitxo den, sakrifizio gehiegiren kostuarekin eraikitako strategiaren zuloa ageri da hor. Eta estrategia suizida horren buruko harakiri publikoa.

Nork bere burua engainatu nahi izatea da, erru guztia neguari —pertsonalismoei— botatzea. Ez zen izan, noski, Napoleonen errua, neguan negua etortzea. (Bere pertsonalismo guztiz propioz etorri zen hura, nahi baduzu). Ordea, etor zedinean, Armada Handia ez arma eta ez soldatu Errusian galduta nola gera zitekeen, ez aurrikustea, eta ez kalkulatzea, eta ez ebitatzea, hori bere-bere eta ez besteren errua izan zen osoki eta hala geratuko da betiko — Alderdiaren eta historiaren aurrean.

Hau da krisi honetan egiaz dagoena eta agerian bederen aipatu nahi izan ez dena. Etxegile bati kontuak eskatzen zaizkio, etxea erori egiten bada. Injineruak kontuak eman behar izaten ditu, zubia puskatu egiten bazaio... Hemen? Hemen zubi puskatuari eskatu nahi zaizkio.

Beharbada oraindik ez da mementua, gauzak horrela planteatu ahal izateko. Beharbadarik gabe: oraindik ez da prozesua elkarren irain-arotik pasa. Ez da izango erraza, baina, Alderdiaren izena EAJ bada, etorri beharko du egunak, zein izan den ibili duen eta honela akabatu zaion bide hori, Alderdiak berak hotz-hotzean aztertzeko, eta kontuak ateratzeko. Zer axola zaigu, atzo zein izan omen zen erruduna! Bihar zer egin, inporta zaio Euskadiri. ■ *J. Azurmendi.*